

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Tokiko Gobernu Batzordeak 2019ko irailaren 26an hartutako erabakiaren laburpena; horren bidez deialdia egiten da 2019an egoera oso larrian dauden herrialdeetako haurrak udan Amurrion hartzeko programetarako dirulaguntzetarako

DDBN(Identif.): 476110

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>:

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntzak eskatu ahalko dituzte deialdiaren xedearekin bat datozen jarduerak egiten dituzten irabazteko xederik gabeko elkarteek eta entitateek, betekizun hauek betez gero:

a) Kasuan kasuko erregistroan formalki eratuta eta inskribatuta egotea, gutxienez eskaerak aurkezteko epea amaitu baino urtebete lehenagotik.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra edukitzea.

Eragin horietarako, ordezkaritza iraunkortzat hartuko da kasuan kasuko entitateak gizarte oinarria (bazkideak, boluntarioak edo antzekoak) duten egitura esanguratsuak Euskal Autonomia Erkidegoan dituela agiri bidez frogatu ahal denean. Kasu honetan, ordezkaritza iraunkorrak bere gain hartzen du eskaerak aurkezteko erantzukizun zuzena, eta proiektuaren agiri multzoa, kontabilitatea eta kudeaketa partekatua Euskal Autonomia Erkidegoko bulegoan mantentzeko konpromisoa. Proiektuaren kudeaketa partekatua izango da hurrengoetan parte hartzea: proiektuaren identifikazioa, formulazioa, jarraipena eta ebaluazioa.

c) Amurrioko Udalak finantzatu baditu aurreko deialdietan, proiektu horien kasuan kasuko likidazioak eta jarraipen txostenak ezarritako baldintzak beteta eta epealdiaren barruan aurkeztuta egon behar dira.

d) Deialdiaren xedearekin bat datozen jarduerak egiten eskarmentua dutela frogatu behar dute, eta programatzen diren proiektuak, finantza laguntza jasotzen dutenak, gauzatzeko gaitasuna ere bai.

e) Gaitasuna edukitzea elkartasuna mugiarazteko, norberaren baliabideak eta baliabide pribatuak sortzeko nahiz beste instituzio edota erakundeetatik finantza laguntzak eskuratzeko.

Oinarri honen lehen paragrafoan aipatutako entitateek ezin dute eskatu dirulaguntzarik baldin eta estatutuak, egoera juridiko diplomatikoa edo beste inguruabarren bat dela-eta oinarri hauetan ezarritakoa eta, zehazkiago, 10. eta 12. oinarriek ezarritakoa bete ezin badute.

Deialdi honetara aurkezteko aukeratik kanpo geratzen dira beren-beregi izaera publikoko instituzioak edota erakundeak eta aurrezki erakundeak, baita irabazteko xedea duten enpresak eta bestelako erakundeak ere.

Hala eta guztiz ere, oro har, dirulaguntza baten onuradun izan nahi dutenek Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako betekizunak bete behar dituzte.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen bitartez, norgehiagoka araubidean, 2019ko programa hauek diruz laguntzea arautu da: egoera oso larrian dauden herrialdeetako umeak oporraldian Amurrioko udalerrian eta bertako familietan hartzeko programak. Irabazteko xederik gabeko elkarteek eta entitateek babesten dituzten programa horiek adingabe horien ongizatea sustatzen dute eta, gainera, gure udalerrian elkartasunaren kultura sortzen laguntzen dute.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntzen oinarri arautzaileak Aurrekontua Gauzatzeko Udal Arauaren VII. kapituluaren daude jasota, eta 2019ko uztailaren 10eko ALHAOn argitaratu ziren: 34. oinarria. Egoera oso larrian dauden herrialdeetako adingabeak Amurriko udan edukitzeko programetarako 2019ko dirulaguntzak eskatzeko eta emateko prozedura arautzen duten ordenantza.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdia 6.000 euroekin dago hornituta.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

30 egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Amurrio, 2019ko urriaren 4a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA